



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Eskolaren benetako zerizanaren bila



Heziguneetara itzultzean, kontuan izan beharko ditugu etxean landutakoak.

Guillaume FAUVEAU

Frei Betto bost urtez **Brasilgo favela batean bizi izan zen, lehen haurdunaldian zeuden emakumeei haurrak nola zaindu erakusten zieten medikuei laguntzen.**

Komunikazio arazo bat zegoen: emakumeak hizkuntza bat hitz egiten zuten (oso behartsuak ziren, faveletakoak) eta sendagileek beste bat (akademikoa). Arazo haren mui-na zein zen aztertzeke deitu zioten.

Mediku batek amei bularra ematen eta produktu industrialak ez erabiltzen erakusten zien. Bettok ama bati galdetu zion ea planteatu ziotena ulertu zuen. Ezetz erantzun zuen, ulertu zuen bakarra zela bere esnea haurra-ren elikadurarako ona zela. «Eta zergatik ez duzu ulertu?» galdetu zionean, ikasketarik ez zuela, eskolara bere bizitza osoan behin baino ez zela joan erantzun zion. Orduan, sendagileari galdetu zion ea sukaldean bazekien eta ezetz erantzun zion. Ama hura, ordea, edozein janari prestatzeko gai zen.

Eta biak oihanean galduko balira? Medikua gosez hilko litzateke. Eta emakumea, segur aski, ez. Bettoren arabera, «horrek esan nahi du inor ez dagoela beste inor baino baxuago. Kultura askotarikoak daude eta sozial-

ki bateragarriak dira. Emakumea gai da nire kultura unibertsitariorik gabe bizitzeko, eta ni, aldiz, ez bererik ga-be».

Covid-19a lurrikara izan da, batez ere. Gure helburuen eta nahien zimentuei dar-dar eginarazi die eta kolo-kan jarri du hezkuntza sistemaren zentzua bera. Etxea hezigune nagusi bihurtu den honetan, etxekoan eta he- zitzaileen artean ezinbestean harre- mana eta elkarlana beharrezkoa bila- katu duen geldiune honek oxala balioko balu denok hezkuntzaren be- netako zerizana topatzeko ahalegine- an jartzeko.

Ezustean etorri zaigun muturreko egoera honek erdigunean jarri ditu bi- zitzeta eta zaintza. Pandemiak gure es- peziea arriskuan jarri du. Eta abagune horretan, bizitza sostengatzea izan da bizirauteko genuen aukera bakarra. Jendartearen egiteko nagusia bizitzari eustea bihurtu da, zaurgarriak, ahule- nak erdigunean jarrita.

Tupustean ohartu gara denok hau- rrak, gure aitona-amonak, gaixo daudenak, ekonomiak eta sistemak baztertuta dituen jendeak direla zaindu behar ditugunak. Edo denak garelako edo ez dela inor. Gutako bakoit- ztak gure burua zainduz zaintzen di-

tugula besteak. Sekula baino argiago sentitu ahal izan dugu komunitatearen indarra.

Bizitzak eman digun ikaspen gogor bezain interesgarri honek eskola ba- rrura begira jartzera gonbidatu behar- ko liguke. Nortzuk dira zaurgarrienak, bereziki zaindu beharko genituzkee- nak? Eskola etxeratu dugunean, tele- matiko bihurtu behar izan ditugune- an harremanak, edukiak eta abar, zaurgarriak zaurgarriago bilakatu zaizkigu: konektibitatea, euskararen arnasmunea galtzea... Ekitatea zailagoa bihurtu zaio eskolari.

Bizitzarako hezi nahi genuela ge- nion pandemiaren aurretik. Ariketa praktiko paregabea eskaini digu bi- zitzak helburu hori betetzeko zein tres- na zaizkigun baliagarriagoak identifi- katzeko.

Konfinamendu bizitza, batez ere, norbere burua kudeatzen, ikasten, pentsatzen, egiten, ekiten, komunika- tzen eta elkarrekin bizitzen jakin dute- nek daramate arrakastatsuen. Oso kontuan hartu beharko genuke hezi- guneetara itzultzen garenean. Horre- kin batera, osasunarekiko eta higie- nearekiko analfabetismo prozesu esanguratsu batean gaude: elikadura eta komunitatearen ongizatea, mugi- mendua (egon-mugitu), atsedena eta naturarekiko hartu-emana curriculu- mean txertatzeko urgentzia nabar- men geratu da.

Itzultzen garenean, oso kontuan izan beharko genuke zein gaitasun landu ditugun etxean bizitza sosten- gatu eta gure osasuna eta komunitate- arena zaintzeko. Heziguneetara itzul- tzean haiei balioa ematea zor dugu. Asmatuko bagenu Bettok aipatzen di- tuen kultura horiek guztiak elkarlane- an jartzen, elkarrekin ikasten joan gai- tezen nola egin geure buruak pertsona hobeak... Eta aurrekoan ge- nion bezala, inor atzean edota bazte- rrean utzi gabe. •